



Zuhaitz artean hasi da azoka berezien denboraldia

TOLOSA ▶ 20 mintegik jarri zituzten salgai beren produktuak, atzo, Zuhaitz Eguneko Azoka Berezian

ALDAKETA ▶ Aurten San Frantziskon izan da, orain Zerkausiko saltzaileak Trianguloan baitira ▶ 6



Negua da zuhaitzak landatzeko garaia; zuhaitz eta landare ugari aurki zitezkeen atzo. I. GARCIA



J. ASTIBIA



Azken eguna ere umore ederrean pasatuko dute

ARESO ▶ Oraindik mozarrotu ez dena tenorez dabil, gaur ere festa giroa izanen baita nagusi; atzo, gosaria, eskea, afaria, musika... denetik egon zen herrian ▶ 7

TOLOSA ▶

Gerontologiko berria lortzeko kanpaina abiarazi dute

Bilera egin zuen atzo 'Eta orain zer?' plataformak, ekintzak prestatzeko ▶ 7

UZTURRETIK ▶ EKAIN GARMENDIA

Psikoanalista vs. Printze Txikia



Llabero berria daukat. Lehen amnistiarene ikurra neukan llaberotzat, gilitza itxura duten horietakoa; baina Olentzerok Printze Txikiaren imajina duen bat ekarri dit, eta segituan jarri dut berria zaharraren orde. Eta, psikoanalistetan xahutzeko nahiko diru eta umorerik ez daukadanez, periodiko txoko hau aprobetxatzea erabaki dut, huskeria bati ez duen transzendentzia eman eta nire buruari es-

piritualetik ere zerbait baduela sinistarazteko. Ba hori, egiazko psikoanalista bainintzen.

«Zertara dator aldaketa hau? Zer delata ordezkaten du metalezko Printze Txikiak amnistiarene ikurra?», galdetuko luke taxuzko psikoanalista. Urteak bete ahala eskuinera jo dudalako? Askotan entzun izan dut utopiak —amnstiak, independentziak eta Udal errepresentatiboak hala omen dira— nerabazarorako direla. Keba... Ez dut uste. Egia, urteek aurrera egin ahala sinboloak eta gutxiago gustatzen zaizkit, baina sinboloen atzean dagoenak berdintsu jarraitzen du, gutxi gorabehera. Printze txiki izaten jarraitu nahi dudalako, ume izatea uzteari beldur diodalako agian? Ezta ere. Nire pisukideetako batek dioen beza-

la, «joder, ja 25 urte ta oaindik zentraube» jarraitzen dugu. Ez, ez, beranduko nerabazaroa ez da politika kontuetan bakarrik sumatzen.

Ez naiz psikoanalista ona. Seguru asko, egiazko psikoanalista batek edukiko luke zer esanik: llabero zaharra uzteak sinbolikoko mesfidantza erakusten duela, zentratu gabe jarraitze horregatik zaidala gustuko Printze Txikiaren imajina... Llaberoekin zer ikusia duten hamaika trauma politikosexual aipatuko lizkidake, ziur. Horregatik ez diet inoiz kasu gehiegirik egin psikoanalistei eta antzekoei. Batzuetan, llaberoak llabero hutsak direlako, eta, psikoanalistek beren azalpenetan arrazoi izan badezakete ere, azalpenik gabeko erabaki eta anekdotak dibertigarriagoak direlako.

KOMIKIA ▶

GORKA SALABERRIA



iragarki laburrak ▶

Laborategia. Plaza libreak: teknikariak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzak. Informazioa doan. 943 31 37 82.

Ohar garrantzitsua. Urritasun fisikoren bat baldin baduzu, l or ezazu lanpostu finkoa. %5 erreserbatua. Informazioa doan: 943 31 37 82.

Poioiak. Obrak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak. Udalebetarako. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Gidariak. Hurrengo lanpostuak Foru Aldundirako. Kontratu mugagabea. 943 31 37 82.

Suhiltzaileak, udaltzaingoa. Plaza libreak udalebetarako.

Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

Garbitzaileak. Lanpostu finkoak: eraikin publikoak, ikastetxeak, erietxeak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz. 943 31 37 82.

Presazkoa. Haur zaintzaileak eta

haur eskoletarako hezitzaileak behar dira. 943 31 37 82.

Administrari laguntzaileak. Plaza libreak udalebetarako. 1.200 euro. Lanaldia: astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakian.

'EGUNKARIA AUZIA' ▶

Auzibideak aurrera segitzeko eskatu du fiskalak

Egunkaria auzia artxibatze-ko eskatzen duen helegitea aztertu eta gero, Martxelo Otamendi tolosarra, Iñaki Uria, Joan Mari Torrealdai, Pello Zubiria, Txema Auzmendi, Xabier Alegria eta Xabier Oleaga auzipetuen kontrako prozesuak berresteko eskatu du auzibideko fiskal Miguel Angel Carballo. Auzipetuek indarkeriarik erabiltzen ez dutela onartu duen arren, ETaren menpeko izatea egotzi die. Iñigo Iruin abokatuak, berriz, ez dagoela delitu zantzurik esan du, eta auzia artxibatzeko eskatu.

MENDIA ▶

Federazioaren sari banaketa atzeratu egin dute

Euskal Mendizale Federazioa ostiralean Galdakaon egitekoa zen sari banaketa otsailaren 10era arte atzeratu dute, elurteagatik. Hala, Ramon Garate eta Joseba Ormazabal mendizale tolosarrek orduan jasoko dute mezeritako saria.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarraldea.** Osa. etxea: 672411

▶ **Iruia.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzararako autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ **Ertzaintza:** 538820

▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ **Iurramendi egotza:** 670325

▶ **Tolosa gasa:** 675320

GUTUN@K ▶

Prekaritatea salatu, borrokatu, garaitu

Prekaritatearen mamua aspaldi bilakatu zen errealitate beltzenaren adierazle. Denborak erakutsi digu prekaritateak ez duela ez adinik ez generorik errespetatzen eta, honen aurrean, ondorengo hausnarketa orokor hau luzatu nahi genuke:

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu prekaritateak aspaldi utzi ziola gazteen arazo espezifikoa izateari; nahiz eta oraindik ere gazte langileriaren arazo nagusia izaten jarraitzen duen, tamalez.

Prekaritatea gazte langileriararen errealitate gordina da lan merkatuan; eta hain zuzen ere, horri eraginkortasunez aurre egingo dion sindikatua da gazteek behar duten lan tresna nagusia. Beraz, egoera salatzeari premia zozkoa dugu eta arrazoiak ez zaizkigu falta:

- Prekaritatea nagusi den gizaritean gazte langileok proiektu aske, burujabe eta duina garratzeko bitartekorik ez dugulako.

- Prekaritatearen estrategiak klase ikuspegia ahuldu eta lantokietan enpresarien txantxa indartzen duelako, ondorioz esplotazio baldintzak gogortzen zaizkiolarik gazte langileria.

Herri proiektu aske eta burujabearen oinarriak ere pitzatu egiten dituztelako neoliberalismoaren politikak eragindako prekaritate sozialaren baldintzek.

Bigarrenik, aipatu nahi dugu prekaritatea ez dela bizi dugun gizaritearen eraginez sortutako fenomeno, etengabe indartzen eta zabaltzen ari den sistema kapitalista eta neoliberalistaren berezko joera baizik.

Prekaritatea minbizia gorpuztean zabaltzen den bezalaxe ari da gizaritean hedatzen. Inor ez da prekaritate baldintzetatik salbu geratzen: Sektore publikoaren langileak zein pribatuarenak, kualifikatuak zein kualifikatu gabeak, lizentziatuak, langile industrialak zein produktio eta difusio kulturalako langileak, komertzio txiki zein handietakoak...

Ongizate estatua amaitu da gure belaunaldiarentzat eta gizarite eredu prekariorik dira gure etorkizun hurbilenaren adierazle.

Honen harira, eta hirugarrenik, uste dugu prekaritateak ez dela lan harremanen arazoa bakarrik; sakonagoa baita marrazten duen errealitatea: prekaritatea kapitalaren berregi-

turaketa beharrei erantzuten dion zapalkuntza da eta, ondorioz, esplotazio era berrituen aurrean aurkitzen gara. Enpresariarentzako onura bikoitza dakar, beraz, prekaritatearen estrategia: batetik, esplotazioaren areagotzea bermatzen duelako eta, bestetik, langileen borroka desaktibatzeko bitartekoak ere indartzen dituelako.

Jokoaren arauak aldatu ditu kapitalak. Eta joko arau berriaren agerikoa da lantokietara mugatzen den sindikalgingintza eredu klasikoak, hainbat mugapen aurkitzen dituela modu eraginkor batean jarduteko. Gainera, prekaritate baldintzetan enpresaren egoera estrukturala aldatzeko indar korrelazio nahikorik gabe gera gintezke; batetik, prekaritatearen baldintzen pean enpresariaren txantxa indarra borrokarako mugapen garrantzitsua delako —kaleratzearen beldurra edo kontratua ez berritzearen kezka enpresa bakoiko protesta dinamikaren oztopo nabarmenak izaki—; eta, bestetik, behin-behineko kontratuak, lan eta langabezi egoeren txandaketa dinamikak edo lantoki aldatetarako, besteren artean ohiko sindikalgingintza ereduaren martxaren mugapenak ere baidirelako.

Helburua indar korrelazioak langileriararen alde jartzea izanik, prekaritateak sortzen duen gatazka, klase subjektu bakarreko ikuspegi berrituarekin erreparatu beharra dago, lantokiaren mugak gaindituz eta borroka gizarteratuz.

Badakigu borroka latz bezain gogor eta luze baten aurrean aurkitzen garela. Baina gazte langileriararen indarra langileria klase osoarekin uztarturik, leloak dioen bezala, prekaritate egoerak salatu, borrokatu eta garaitu ditugu.

AITZOL ARISTORENA ARRIETA,
IGORTZ BADIOLA ARRATIBEL ETA
OLATZ AMIANO ZUNZUNEGI
(TOLOSAKO LAB GAZTEAK-EN
IZENEAN) ▶ TOLOSA

Aldaketaren isla

Gure instituzio publikoek gobernatzen dituzten arlo denek ez naute harrotasunez betetzen, baina gaurkoan goraiagarria den bat nabarmendu nahi dut.

Gehienok ikusi izango duzuen iragarki bati buruz ari naiz, zehazki, animalien gaitzaren tratu zuzena aldarrikatzen duen EITBko iragarkia buruz.

Goresgarria dela diot, konpantziaren gure gizaritearen bideak diruak irudikatzen di-

tuela. Honen adibide adierazgarri dira iragarkiak, hain zuzen ere, eta pozgarria da erakunde publiko honek arlo honetan gizarite etikoago eta zuzenago baten aldeko bidean ekarpen hau egiten ari dela ikustea.

Azken batean, izaki moralak gara, eta gure gizarite honetan beste arlo askotako arazoak ere baditugun arren, zorionez gehienok ez dugu jada begi onez ikusten animaliak abandonatzea edo zenbait animalia jendearen aurrean lintzatzea, besteak beste. Nire aburuz, EITBren iragarkia gizaritearen aldaketa honen isla da eta zorianak eman nahi dizkiot EITB-ri bere ekarpenagatik.

ITZIAR SAN MARTIN
EGIA ▶ ORDIZIA

Pello Odriozola, 18 urte borrokan eta erresistentzian

Atzo, larunbata, bete ziren 18 urte Pello Odriozola tolosar euskal preso politikoa atxilotu eta espetxeratu zutenetik. Edorta Agirre eta Antton Otamendi Muxar-ekin batera. Gaur egun Ourenseko espetxean aurkitzen da, eta espetxe horretan dagoen euskal preso politikoa bakarria izanik, esan genezake erabateko isolamenduan aurkitzen dela.

18 urte borrokan eta erresistentzian daramatza Pellok espetxe barruan, presoekin kolektiboak hamarkada osoak daraman bezala. Hamarkada osoak bere eskubideen aldeko borrokan. Euskal Preso Politikoen Kolektiboak erresistentzia eta Euskal Herriaren aldeko borrokan erreferentzia goren irabazi du, urteetan zehar bere arka etsaiek erabilitako erresistentziaren aurrean duintasun osoz erakutsitako indar eta sendotasunarengatik. Euskal borrokalari bahituen aurka, Pelloren aurka, etsaiek urteetan zehar diseinatutako espetxe politika eta fase ezberdinen aurrean kolektiboak gai izan da zapalketa gainditu eta bere duintasun politikoa mantentzeko.

Sakabanaketaren porrot politikoa ikusiz, euskal preso politikoen aurkako eraso sakondu eta azken urteetan berez laztak eta mingarriak ziren bizi baldintzak estutzera jo du etsaiek. Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoera espetxetara eramanez, presoekin bizi dituzten borroka eta mugapen

berriak ezarri, komunikazioen murrizketak eraginez, espetxe barruko jardueretarako ukapenak, erredentzioen amaiera espetxe zaintza zentralaren sorrerarekin, isolamendu eta bakardade egoeren sakontzea, espetxez espetxe barne araudien estutzea, ikasteko debekuak edota 40 urteetako espetxe zigorra.

Ez dugu ahaztu behar PSOEek jarri zuela martxan sakabanaketa politikoa, baina honekin batera sakabanaketa eta isolamendu politikaren asmatzaileak eta babesle sutsuenak gure artean ditugula, herri honetan, PNV eta konpainia. Hemendik exijitu nahi diegu orduan erakutsi zuten kemena, orain euskal presoak Euskal Herria ekartzeko eta presoekin eskubideen alde lan egiteko erabilteko indar berberekin.

Gatazka konpontzeko eztabaida sakontzen ari den honetan, Espainiak eta Frantziak daramaten jokabidea salatu nahi dugu. Daukaten jarrerarekin arazoa konplikatuta eta sufriemendua luzatu besterik ez baitute egiten. Gatazka bide demokratikotik bideratzea exijitzen diegu eta espetxeetarako sistema aldatzea keinu bat litzateke zentzu horretan.

Ezin daiteke konpondu bi estatuak eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoa presoekin suntsitzea eta senide eta lagunen heriotza helburu dituen sakabanaketa politikoen indarrean dutela. Bi estatuek ezarritako heriotza zigor horrek amaitu behar du. Presoei eta senideei sakabanaketa politikoen ondorioz egiten dizkien eskubide urraketak amaitu eta gatazka politikoa konpontzeko urratsa emateko bidea da Euskal Preso Politikoen Kolektiboari dagozkion eskubideak bermatzea.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren estatus politikoren aitorzak bere gizaritearen eskubide zein kolektiboaren aitorza suposatzen du, hau da, bere Euskal Herriatzea, bere interlokuzioaren aitorza, gatazkaren soluziobide posible baten foro eta eztabaida-lekuetan parte hartzeko eskubidea, gatazkaren soluziobiderako bere ikuspuntua eta ekarpena emateko beste eragileekin biltzeko posibilitatea bermatzea. Zalantzarik gabe, oso urrats garrantzitsua izango litzateke eta ateak irekiko litzokie soluziobideari.

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak mahai gainean jarri du bere proposamena gatazka konpontzeko, aurrerapausoa eman du dagoeneko. Orain, aitorza hori lortzeko, gizaritearen inplikazioa behar da, bere

posibilitatearen neurrian. Sakabanaketa, isolamendu fisiko zein politikoa, komunikatzen murrizketak, ikasteko eskubidearen urraketa, komunikazioen kontrolatzeak, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren suntsiketa fisiko zein politikoa besterik bilatzen ez duten eguneroko urraketak, gorrotoan eta mendekuan oinarrituriko neurri guztien aurrean, bere duintasuna altu asko mantentzen jakin izan duen Kolektibo bat, inoiz baino kohesioanago eta biziago dagoen Kolektibo bat, eta Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa behin betirako soluziobide juxtu eta demokratikoa bilatzeko apustua egiten ari dena.

Euskal gizariteari dagokio, gutako bakoitzari dagokigu lekuko hori hartzea tinkotasunez eta erantzukizunez, eta Euskal Herriko geroa eta etorkizuna eraikitzea. Aukera berri baten aurrean gaude. Honaino iritsi baldin bagara, Pellori esker, espetxeetan, ihesean, klandestinitatean dauden borrokalari guzti hauei esker, hauek emandako borroka esker, borroka honetan eroritako militante guztiei esker izan da. Herri honek, guk, zor handi bat daukaugu borrokalari hauekin guztiekin.

MIKEL ZABALA
(AMNISTIAREN ALDEKO
MUGIMENDUAREN
IZENEAN) ▶ TOLOSA

Alegi eta Tolosa arteko N-1eko errepide zatia

Urte berriaren etorrerarekin hasi dira Euskal Herriko bideak txirridulariz betetzen, hain gustuko dugun kirolean jarduteko. Baina bada Alegi eta Tolosa artean N-1en errepide zati bat, ibilgailuak eta txirridulariak denak batera erabiltzera behartuak gaudena, baldin eta Altzoko jokoera saihestu nahi badugu. Zati horretan izaten diren istripu kopurua kontuan izanik, esan beharrik ez dagoela uste du nork duen dena galtzeko.

Jakina da bide-gorri bat egiteko proiektua bada Alegi eta Tolosa artean, baina noizko? Noren zain daude? Agian dirua da arazo? Edo Basurtin duela egun gutxi gertatu den istripu lazgarri horren moduko zerbait gertatu zain daude, ondoren hamar egunerako arazo konpontzeko. Gipuzkoako Foru Aldundia, Tolosako eta Alegiako udalak, noizko bidegorria?

LUIS ESNAOLA ▶ ASTEASUA

VILLABONA-ZIZURKIL | HALTEROFILIA

Pisuarekin gora-beheran

Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez eta Jon Sasian Madrilen eta Bartzelonan ari dira halterofilia munduan bidea ireki nahian: punta-puntuak pultsulariak dira



Punta-puntuak pultsulari ugari eman ditu Danena-Olaederra halterofilia taldeak lanean daramatzaten urteotan. JUAN CARLOS RUIZ / AIZONA PRESS

BATIS KORTAJARENA | ENTRENATZAILA

«Zaila da adin batetik aurrera pultsulariak mantentzea»



I. BEGOTI

54 urte ditu eta eskarmentu handia hainbat kiroltan. Gertetan atletismoa egin zuen. Ondoren errugbian aritu zen Euskal Selektioarekin jokatzera iritsi, eta orain halterofilia entrenatzaile garrantzitsua da nazio mailan. Harekin mintzatu da Hirs.
Zer modukoa da halterofiliaren egoera?
Zertarako gezur esan... Gu nahiko egoera onean gaude, baina ia bakarrak gara Euskal Herria osoan gazteekin lan egiten dugunak. Gainera, adin batetik aurrera pultsulariak mantentzea zaila da; gazteak ditugu gehienbat. Gorpuzkoan Zaratzen eta Iratzen badaude taldeak, baina jende helduarekin lan egiten dute. Euskal Herria mailan ere gazteak ez dira askoz hobeak.
Eta 'doping'...
Eguneroko gai da kirolleak, eta baina gurean ere. Ni guztiz

aurkakoa naiz. Esperientziak erakutsi ditu Olimpiar Jokoa iristea dagoela doping-ik gabeko baina iristea gauza bat da eta irabazte beste bat. Jon Tecedor 10. izan zen ezer kontsumitu gabe. Etrusiarrak, bulgariarrak... ezagutu ditut eta Jon da ezagutu dudun guzirik indartsuena. Seigarren ala bosgarren izan zaitzake garbi izanda, hortik aurrera.
Zer dela eta ematen da zuen taldean horrelako maila oneko pultsularien kontzentrazioa? Zein faktorek eragin dezake?
Egia esateko, ni ere harriruta nago. Duela 18 urte etorri nintzen Donostiako Villabonara bizitzera. Donostiako Belodromoan ere halterofilia entrenatzaile bezala aritu nintzen, baina bertan jendearen motibazioa ez zen onegia. Hona helduzan ingururiko ezusteko eraman nuen, jendeak ikas-

garritziko gogoa zeukalako. Astean sei egunetan entrenatzen gara eta egoera horretan, dohainak dituenak aurrera egiten du beti. Genetikoki egokia behar du, hortik aurrera lan egitea eta teknika ikasketako pazientzia besterik ez da behar. Askok asperuta uzten dute; kirol gogorra da.
Gazteak ere fuertze datoz, eta?
Bai, hala da. Orainxe Igor Sasian eta Jon Ander Iriarte ditugu. CAR edo Joaquin Blume zentroetan plazarik badaude,

hasek izango dira ziurarenk bertarako beka lortuko dituenak. Hasekin bost kirolari dituen gogotuzko nazio mailako lehenen artean, eta hori nirezat, entrenatzaile bezala, oso pozgarria da.
Jendeak kirol arriskutsua dela uste du; zer esan dezakezu?
Horiuste duenak kirol hau ezagutzen ez duelako da. Buztira osoa daramat kirol honetan, eta ez dugu ez lesorik ez hazkuntze arazorik izan. Guztia topiko hartua da. *


IVIGO ASENSIO

Urte morroso daramate lanean Danena-Olaederra halterofilia taldekoak. Urte horietan lorpen handiak egin dituzte eta, orain, punta-puntuak dituzte hirur pultsulari: Ekaitz Kortajarena, Teddy Martinez eta Jon Sasian. «Nazio mailan dauden bi zentro garrantzitsuetan ari dira lanean, aurreneko biak Sant Cugat-eko (Katalunia) CAR zentroan, eta hirugarrena Madrigo Joaquin Blume egotzen. Hirurak gasetxo hasi ziren halterofilian, eta gazte izan izan zuten etetik kanpo bizitzera. Halterofiliaren elitean badaude ere, bakoitzak bere ikasketak betetzen ditu. Madrigo eta Bartzelonako zentroetan aritzeko ezbestekoa dutelako.

Jon Sasianek 16 urte ditu. Bera Joaquin Blume egotzen dauden 11 bekatutako bat da. Bere adina dela eta Bartzelonan ikasten du orain. Basteiaz gain, astean sei egunetan entrenatzen da, eta Eguerrietako porroak aprobetxatzeko zuzen Villabonara, Kortajarena eta Martinez bezala. Espainiako 15 urtez beharoko Txapelketan irabazi zuen, eta 17 urtez azpiko Espainiako Txapelketa irabazi zuen gero. Europako bi Txapelketan aritu da, eta bigarrenen 9 postua lortu zuen.

Ekaitz Kortajarena Villabonako taldeko entrenatzailearen semea da. Bera ere gazte hasi zen halterofilian. «Hasieran ez dute pisurik albatzen, teknika lantzen dute soilik, indarrik ez daukatelako. Gorpuzka garatzen doan heinean pisuarekin lan egiten hasten gara, baina beti hain indarra kontutan izanik», azaldu dio Hirsari Batis Kortajarena entrenatzaileak. Ekaitz semeak 19 urte ditu orain. Espainiako Txapelketa izan da 16 eta 20 urte beharoko mailatan, eta Europako Txapelketan ere parte hartu du.

Teddy Martinez Kuban jaioa da, 9 urterekin etorri zen Villabonara bizitzera, eta 13 bat urtetatik aurrera da kirol hain lantzen. Ikasurtea hasia zegoela joan zen Katalunian eta, horregatik, formalak zirelakoan bat bitartean ari zailko. Martinezek CAR zentroan entrenatzen da, bertan erabiltzen den entrenamendu sistema bulgariarrarekin. «Entrenatzeko modu gogorra da, astean bost egunetan entrenatzen duguz eta arratsalde, eta hortetatik hiru eta horietatik hiru gehieneko pisua albatzen dute. Metodo berritua da, gorpuzka ohitu gabe bada-



Ekaitz Kortajarena, lehiari; 19 urte ditu. HITA



Jon Sasian da hiruetan gazteena; 16 urte ditu. HITA



Teddy Martinez 18 urteko pultsularia. HITA

PULTSULARIAK |

Pultsularien adina, altuera, eta pisuaz gain, alba duten gehieneko pisua ere hartu behar da. Honez gain, altuko pisuaren eta hasek pisatzen dutenaren artean puntuazio bat lortzen da, bapetiketan erreferentzia bezala erabiltzen dena.

TEDDY MARTINEZ

Adina. 18 urte.
Aluera. 1,75 metro.
Pisua. 77 kilogramo.
Markak. 122 kg (ferasaldi batean); 155 kg (bilan).
Puntuazioa. 340.



EKAITZ KORTAJARENA

Adina. 19 urte.
Aluera. 1,68 metro.
Pisua. 62 kilogramo.
Markak. 102,5 kg (ferasaldi batean); 127,5 kg (bilan).
Puntuazioa. 342.



JON SASIAN

Adina. 16 urte.
Aluera. 1,66 metro.
Pisua. 62 kilogramo.
Markak. 102,5 kg (bilan).
Puntuazioa. 327.



ko. Kirol honek indartsu hazten laguntzen digu, jendeak uste duenaren aurka», dio Martinezek. Villabonako dagoen pultsulari onen kontzentrazioa galdetzen garbi dute zein den arrazoia: «Faktore garrantzitsuenaren etentzailea da, garbi dago gu gogoz aritzea beharrezkoa dela, baina Batisen lana ezbestekoa da Danena-Olaederraren arrakastarako».

go, batik bat. Ez ditu beti emaitza onak ematen, eta Teddy-ri kostaten arri zaio. Ni beste entrenamendu mota baten aldekoa naiz, progresioan oinarritzen dena, baina bakoitzak bere metodoak ditu», aipatu du Batis Kortajarenak.

Kanpoan bizitzea eta hain entrenamendu gogorrak egitea ibarretan zaila egiten dela onartzen dute, baina jakin ere badakite aukera paregabeaz gozatzen ari direla. Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak 14 pultsulari soilik ematen die beka, eta hortetatik hirur Villabonako pultsularien artean daude. «Hain egun osoa ikasketa eta entrenamendu artean joaten zaigu, ez dago asperterik denborarik, baina ezta atsedenerako tarterik ere», dio Jon Sasianek.

Jomugeri buruz galdetzen, etorkizunari errespetuz begiratzen dituela antzematen da. Martinezek Europako Txapel-

ketan estreinatzeko gogoz dagoela onartzen du, izan ere, duela gutxi arte ez du nazio-mailako aldizkerik izan, eta horrek Europan lehiatzea debekatu dio. Ez dute Olimpiar Jokoko selektio osoa Danena-Olaederra taldeko pultsulariek osatzen dute gehienetan. Horregatik, Txapelketetan lehenengo saikera taldeari puntuak emateko egiten dute, eta beste biak bakoitzaren interesak defendatzeko. Pisu errazeko batetik egiten da lehen saikera hori, taldeari kalte ez egiteko, eta hortik aurrera norberak arrotzatea dauka bere intereserik begira.

Halterofiliaren inguruan esaten diren gauza gehienak topikoak dira diote pultsulariek. «Halterofilia haskunde garaian kaltegarria dela diote askok, baina bertan zer egiten dugun ez dakitela da hori. Guk teknikari garrantzia handia ematen digu, indarra adinari lortzen den nerbitz dila-

LASKORAIN IKASTOLA
«Kaltateko Heziketa Euskalduna eta cleanitza»
Euskadi
www.laskorainkastola.net
943 697 122

ZUHAITZ EGUNA ▶

Landatzeko garaia heldu da

Zuhaitz eta landareen Azoka Berezia egin zuten atzo San Frantzisko etorbidean



Jende ugari ibili zen, atzo, San Frantzisko etorbidean zeuden postuen artean. I. GARCIA

Azokaren itxura berria

Erredakzioa ▶ Bertako produktua erosten diren larunbateroko azokak itxura eta kokaleku berria estreinatu zituen atzo. Zerkausiko berritze lanak direla eta, postuak Trianguloran jarri zituzten saltzaileek, karpa batzuen azpian, Tolosan egiten diren zenbait azoka berezien itxura hartuz. Orain, ikusteko dago nola funtzionatu duen azoka *berriak*. I. GARCIA



IMANOL GARCIA

Zuhaitz Eguneko Azoka Bereziak kokaleku berria izan zuen atzo: San Frantzisko etorbidea. Trainguloan larunbateroko azoka izan zen, eta horrek behartu zuen leku aldaketa. Baina ez horrek ezta eguraldi hotzak ere ez zituen utzi tolosarrak beren etxean, lagun ugari bisitatu baitzituzten postuak. Zuhaitz landare eta apaingarrirako landare asko zeuden erosi 20 mintegietan. Zuhaitzak neguan landatu behar dira, eta horregatik egiten da garai honetan Tolosako lehen Azoka Berezia.

Anoetako Urkizu mintegiko Arantxa Elizetxeak zuhaitzaren inguruko Azoka Bereziak «ondo» funtzionatzeko duela azaldu zion HITZARI. Fruitarbolak eta mendiko landareak zituen salgai. «Kopuru txikiak erostera etortzen dira», adierazi zuen Elizetxeak erosle motari buruz galdetzean. Ez omen dituzte aholku asko eman beharrik izaten: «Normalean lehendik zuhaitzak dituzten erosleak izaten dira». Zegamako Arakoma anaien ere fruitarbolak eta mendirako pinuak zituzten salgai. Gustura zeuden azokaren martxarekin. Postuan bertan saltzeaz gain, erosle askok txartela eskatu eta gero telefonoz egiten omen dizkiete eskariak. Jon Zabaletak, Legazpiko Landare haztegiakoak, salmentak «aurten eskasago» zihoaztela zioen. Zuhaitzak eta koniferak saltzen zituen, lorategitarako, bereziki. «Jende dezente ari da ikusmiran, baina ez dira hainbeste animatzen erostera», zehaztu zuen legazpiarrak. Hurrengo urtera arte itxaron beharko, beraz.

AZOKA ▶

Berrikuntzez beteriko azoka eguna izan zen atzokoa

Zuhaitzaren Azoka Berezia baso espezie ugari eta fruitarbolentzuz garritzako zerrenda

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna berrikuntzaz bete izan zen. Alde batetik, atzo egin baitzen aurtengo Zuhaitzaren Azoka Berezia, honek dakarrenekin: baso espezie ugari, izugarritzako fruitarbolentzuz zerrenda, eta apaingarrirako arbolak eta landare asko. Fruitarbolak guztiak 5 eurotan saldu ziren, kiviaren salbuespenarekin. Hau 10 eurotan saltzen zen. Baso espezieen artean, pinua, douglasa, abeto gorria, alertzea, pagoa, haritza, gaztainondoa eta urkia izan ziren besteen artean gehien ikusitakoak.

Bestetik, atzokoa izan zen aurtengo Triangulo plazan egindako lehenengo azoka eguna. Zerkausiarren berritzea hasita baitago. Produktuen zerrenda ez zen gehiegi aldatu, baina postuak norenak diren jakiteko eta ohiko bere toki berrietan kokatzeko lana izan zen erosleen artean.

ATZOKO AZOKA ▶

| | merk. | gares. |
|----------------------|-------|--------|
| Berdura plaza | | |
| Japoniar azalea | 5,00 | 8,00 |
| Zintziliko potoa | 2,40 | 6,00 |
| Erromeroa | 4,00 | 6,00 |
| Xarbot | 4,00 | 6,00 |

Bertako produktua

| | | |
|-------------|------|------|
| Erremolatxa | 1,50 | 2,00 |
| Tipula | 0,80 | 1,00 |
| Azenarioa | 1,20 | 3,00 |
| Porrua | 1,00 | 3,00 |

Produktu ekologikoak

| | | |
|-----------|------|------|
| Kalabaza | 1,60 | 3,04 |
| Baraburia | 1,60 | 6,00 |
| Azenarioa | 2,00 | 2,50 |
| Arroza | 1,90 | 2,00 |

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. Nola ikusten duzue euskararen egoera eskualdean? Zer dago ospatzeko? Zer hobetzeko? Sartu webgunean eta eman zuen iritzia.



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Tolosako Udalak, UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK kontratazeko asmoa du lhauterietarako (negusiki larunbata, igandea, astelehena eta asteartea).

BETEBEHARRAK:

- 18 urte beteta izatea.
 - Escola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea den ikasketa titulua edukitzea.
 - Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko arazo psikiko edo fisikorik ez edukitzea.
 - Euskara jakitea, lanpostuaren eginkizunak zuzen betetzeko beharrezkoa den mailan.
- Baldintza hsu egiazteko, bidezko den azterketa egingo zaie izangaiei, Tolosako Udaltzean, 2006ko otsailaren 14an, goizeko 9etan.**

BALORATUKO DIRA:

- Tolosan enpadronatuta egotea.
 - Lanpostuaren eginbeharrak zehazki duten ikastaroak.
 - Larrialdiko edo Babes Zibileko zerbitzuetan esperientzia izatea.
 - Kirol gertaera, ikusizun publiko edo konzentrazio handietako antolamenduan parte hartu izana.
 - Beste edozein lan esperientzia lanpostuarekin erlazioa duena
- Interesaturik dagoenak Tolosako Udaltzeko Informazioa eta Erregistroan aurkituko du eskaera egiteko orria (Plaza Zaharra 6-A). Eskaerak **2006ko otsailaren 10eko 13:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.**

Eskaeraren batera aurkeztu behar ditu betebeharrak a) eta b) apartatuetoa gainera fotokopiak (NANA eta titulua), eta eskaeran jartzen dituen balorakizunenak.

Tolosan, 2006ko urtarrilaren 26an
ALKATEA - JOKIN BILDARRATZ SORRON

PATRÓN
EMBARCACIONES
RECRO

PLAKETONTZIKO
PATROIA

P.E.R
PLAZA LIBREAK

**DONOSTI
NAUTIKA**

**DONOSTIAKO
ZENTRU
HOMOLOGATU
BAKARRA**

• Klase teoriko-praktikoak

• Talde txikiak

• %95ak gainditzen du

Informazioa
943 31 37 82

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Asteburuetarako sukaldaria behar da Tolosaldeko taberna baterako.
Deitu: 677 32 99 34.

Iturgina. Iturgin lanetarako laguntzailea behar da.

Deitu: 656 41 68 08.
Gidaria. Gidaria behar da ADR-arekin, Espainian eta Hego Euskal Herrian zeharreko garraiolarako. Lan finorako aukera handiak. 607 58 41 39.

SALGAI

Tolosa. Lokala salgai Laskorain kalean. 645 72 83 52.

ARESO ▶ KARNABALAK



Kanpoan -7°ko hotzberoa egiten bazuen ere, tipi tapa abiatu ziren baserrietarantz, soinuarekin. JAIONE ASTIBIA

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Gerontologiko berria lortzeko sinadura bilketa

'Eta orain zer?'-eko kideek bilera egin zuten atzo eta etorkizunerako ekintzak zehaztu



50 lagun inguru bildu zen Gerontologikoan egindako bilerara. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Gerontologiko berriaren eskaria berretsi zuten atzo *Eta orain zer?* plataformako kideek egindako bileran. Plataformak alderdi politikoekin egin dituen bileren berri eman zien gai honen inguruan kezka duten eskualdeko herritarrei, eta baita aurrerantzean Gerontologiko berria eskatzeko eginiko dituzten ekintzen berri ere.

50 lagun bildu ziren Gerontologikoan egindako bilerara, tartean Tolosa Bizirik herri ekimeneko Begoña Aldalur eta Ezker Batuko Jose Mari Vieites. Gerontologiko berria «publikoa, kalitatekoa eta Tolosako, herri barruan» egitea exijitzen dute plataformakoek. Oso garrantzitsutzat jotzen dute guztiek Gerontologiko berria herriguneari kokatzea. «Familiakoek edozein momentuan bisita bat egiteko aukera izatea beharrezkoa da egoitzan dauden edadetuentsat», azaldu dute.

Eskaera hori lortzeko hainbat ekintza burutuko dituzte. Alde batetik, sinadura bilketa bati ekin diote. Datorren la-

runbatean, adibidiez, Tolosaldeko kaleetan mahaiak jarriko dituzte sinadurak biltzeko. Tolosaldeko beste herrietatik etorritakoek kanpaina beren herrietara eramango dute, haietan ere sinadurak biltzeko.

Banderolak saltzen jarraituko dute *Eta orain zer?* plataformakoek, eta pegatinak ateratzeko asmoa ere badute. Manifestazioak egiteko nahia ere azaldu zuten bileran, eta Inauterien ondoren egiteko asmoa erakutsi zuten. Bien bitartean, ordezkari politikoekin biltzen jarraituko dutela zehaztu zuten.

Dagoeneko plataformako kideek bilera egin dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Tolosaldeko Udaleko ordezkariarekin. «Denek gurekin lan taldean parte hartzeko asmoa azaldu dute», zehaztu zuten plataformakoek. «Itxaropentsu» azaltzen badira ere, «ikusi egin beharko dugu zer gertatzen den aurrerantzean». Ordezkari politikoek «beharra ikusten badute ere, oraindik ez dute planteatu nola egingo den», gaineratu zuten.

Eta gaur ere disfrazaz jantzi eta herrian ibiliko dira aresoarrak

Atzokoa ederki joan da: baserrietara eginiko bisitaldi goxoa eta gaueko afari umoretsua tarteko, festa giroa nagusi

JAIONE ASTIBIA

Gaur dute azken eguna *Aisoko karnabalek*. Pake Tokin ederki gosalduta ekinen diote herrian zeharreko eskeari, etxez etxe musika joz eta etxefuegoak botatz, eta txokoetan dagoen beroa eta eskaintzen dizkieten jankiak eskertuz. Eta arratsaldean Jaione eta Jonekin dantzaldia izanen dute plazan. Oraindik mozorrotu ez dena, beraz, tenorez dabil.

Oraindainokoa, berriz, ikusgarri doa. Atzo ere goiz-goizetik hasi ziren festan Lagun Arteako gazteak. Kanpoan, zero azpitik 7 graduko hotzberoa bazegoen ere, halaxe zioten herriko jendeek, behinik behin, eta mendiak ez ezik kaleak ere



Aurrena, noski, gosaria. J. ASTIBIA

elur lapastaz estalita ageri zirelaren izoztuta, gazteek ederki asko egin zioten aurre: Pake Tokin gosalduta, patxadan, eta

soinujotzailea lagun zutela, 20 bat gazte, neska eta mutil, atera ziren eskera hamaikak aldera, pitxi-lorezko brusak soinean zituztela. Herriaren erditik igarota, asko zangoetan bartanak, polainak zituztela, aurreneko baserrietarantz abiatu ziren, hain zuzen ere, Polaiñeneko borda aldera, eta gero handik gainerako baserrietara joan ziren eskean, bidezidor eta lasterbide guztietan barrena. Hiru eta erdiak-laurak aldera arte, ez zuten hotzik pasatuko...

Arratsaldean, gazteak herri-iratzulitakoan, nekerik baldin bazen ez bazen, plazan dantzaldia izan zuten iluntzean, afalordua arte: umoreko herri afaria zuten zain, goizaldera arte luzatuko zena, ziur.

► hilberriak
► urteurrenak
► eskertzak

**Gipuzkoan
50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik.

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Pedro Sarasola Etxeberria

(Angelita Mirallesen alarguna)

Ordizian hil zen, 84 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Goian bego-

Bere seme-alabak: Patxi (+) eta Simoni Zubano, Miren eta Markos Zurutuza; bilobak: Ana eta Jose Manuel, Maite eta Jokin, Ainhoa eta Gorka, Ibon eta Amaia; anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR IGANDEA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ORDIZIAKO parroki elizan egingo den elizkizunera.

oharra ▶ gorpu SAN JOSEKO beilategian dago

ORDIZIA, 2006ko urtarrilaren 29a

eskertza ▶



Luxio Arozana Errasti

(Keixeta)



Gure Luxioren azken agurrean, zuen hurbiltasuna azalduz, zuen maitasuna adieraziz eta zuen otoitzak eskainiz gerturatu zineten guztioi, baita gerturatu ezinik samin-agurrak bidali zenizkigutenoi ere, guztioi, sendikoen aldetik, GURE ESKER ONIK BIHOTZKOENA.

AZKOITIA, 2006ko urtarrilaren 29a

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko urtarrilaren 29a, igandea ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

5

hotzena

2

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN



Guardetxe:



Pagomari:

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

gaur: bai / bihar: bai

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Oroimen tailerra antolatuta du Udalak otsailaren 7tik maiatzaren 30era. 15 ordu dira, asteartean, 11:00etatik 12:00etara. Izen-ematea, Kultur Etxean, 943 65 46 98 telefono zenbakian, hilaren 31 arte.

Amezketak. Gaur, 12:00etatik 13:00etara, *Azti begia* aldizkariaren harpidetza egiteko aukera, herriko elkarteetan.

Ibarra. Gaur 08:30ean, 10:30ean eta 12:00etan, Ibarrik Misio Taldeak sinadura bilketa egingo du San Bartolome elizaren aurrean Hirugarren Mundura bideratzen den laguntza %1 izan dadin Udalarri eskatzeko.

Tolosa. Txosna batzordearen bilera izanen da, etzi, hilak 31, 19:00etan, Kultur Etxean. Inauterietan txosna jarri nahi dutenentzat azken deialdia da.

Tolosa. Erretzen uzteko tratamendua antolatu du Udalak, otsailaren 6an, 13an eta 20an, martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an eta apirilaren 10ean, Kultur Etxean. Bertara joan nahi duenak izena eman behar du otsailaren 2a bitartean, 943 69 74 60 telefono zenbakira deituta.

INAUTERIAK

Areso. Karnabakak: 09:30ean, gosaria; 10:00etan, eskea herrian; 14:30ean, eskelarien bazkaria; 19:00etan, musika plazan, Jaione eta Jonekin.

ZINEMA

Villabona. *Chicken little* filma. 17:00etan, Gurean. Haurrentzako saioa.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz auzoa, 9. 943 67 51 18.
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.

Bihar
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako txapelaldunen bila

TOLOSA ▶ Atzo hasita, Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa egiten ari dira Usabalgo kiroldegian, herrialde osoko 22 klubetako partaide diren 276 igerilari



22 taldetako igerilariak erabatean aritu ziren lanean, ikusleei aspertzeko betarik eman gabe. JAIONE ASTIBIA



Harmailak bete jende bertaratu zen. Hauen eta kideen animoekin aritu ziren kirolariak J. ASTIBIA



JAIONE ASTIBIA

Sekulako giroa izan zen atzo, Usabalgo igerilekuan, beroa. Ez hotzberoa aldetik bakarra — bainujantzarekin ibiltzeko, beharko—, baita animo aldetik ere, harmailak beteta eta hainbat lagun talde dumbal eta guzti, bonboa, alegia, etorri baitzen taldekideei eta lagunei indarrak ematera.

Atzo, Gipuzkoako Igeriketa Txapelketa hasi zen Usabalen, Gipuzkoako Federazioaren eta Tolosaldea IKTren eskutik. Lehen jardunaldia, goizean, 10:30ean hasi zen, eta egun guztian zehar aritu ziren lanean; gaur dute bigarrena eta azkenekoa, 13:00ak aldera arte.

Igor Mate Gipuzkoako Igeriketako Federazioko idazkari nagusiak HITZARI jakinarazi zionez, atzo eta gaur herrialde osoko 22 klubetako igerilariak ari dira lehiatzen; guztira, 276 igerilari. Junior eta senior mailetako txapelketak ari dira egiten, igeriketako ohiko bost modalitatetan igeri eginez, bai emakumezkoetan eta bai gizonezkoetan ere: librea, tximeleta, bizkarrez, bularrez eta bakar-kako estiloa.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Egoitz Buldain.
Bihar 6 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Astoa jakin nahiean dago eta esan gabe ez utzi. Nork bete ditu bi urte eta nork berroita bederatz? Urte askoan Millan eta Jokin.



URTE ASKOAN
Eguzki.
Gaur 5 urte.
Zorionak, etxeko erraldoia!



URTE ASKOAN
Beñat eta June Intza (Villabona).
Bihar 5 urte. Muxu handi-handi bana izeba Maritxuren partetik.



URTE ASKOAN
Ioritz Ugartemendia (Ibarra).
Bihar 5 urte.
Zorionak eta ondo pasa.

HITZA,
zorian agurren tartea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 beheko
TOLOSA
Udalatzeko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!